BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3791

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 29koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, 2010eko urtarrilaren 27ko Aginduko diru-laguntzak esleitzeko ebazpena argitara emateko dena. Kulturako sailburuaren agindu horren bitartez, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan publizitate-printzipioa bete behar denez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena, diru-laguntzen onuradunak eta emandako zenbatekoak adierazten dituena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, interesdunei banan-banan jakinarazteaz gain, horrela xedatzen baita, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautzen duen Kulturako sailburuaren 2010eko urtarrilaren 27ko Aginduan.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Kulturako sailburuaren 2010eko urtarrilaren 27ko Aginduaren babesean 2010eko ekitaldian emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Agindu horren bitartez, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 29a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ERANSKINA

ESKATZAILEAK	EUROAK
Colegio de Abogados de Gipuzkoa / Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa	8.100
Enrique Guinea de Andrés	9.000
Aranzadi Zientzi Elkartea	11.000
Fundación Popular de Estudios Vascos	10.000
Enrique Areilza	14.000
Fundación Oceanografica de Gipuzkoa / Gipuzkoako Ozeanografiko Fundazioa	6.000
M. Ainara Ugalde	14.000
M. Rotaeche	9.000
AHOA. Ahozko historiaren artxiboa. Archivo de la Memoria	5.600
L. M. de Zavala	19.000
L. M. de Zavala	13.000
Lenbur Fundazioa	12.000
Lazkaoko Beneditarren Biblioteka eta Artxiboa	7.000
J. M. Barandiaran Fundazioa	9.000
Gerediaga Elkartea	6.300
Loiola Santutegia	10.000
Loiola Santutegia	9.000
Fundacion Museo de la Minería	8.000
Guztira/Total	180.000